

BAKARTXO TEJERIA OTERMIN

IZAN GINELAKO GARA ETA GARELAKO IZANGO DIRA

Ehun urte joan dira EAJ-PNVk gidatutako abertzaletasunak lehenengo gehiengo nazionalista lortu zuenetik euskal instituzio batean -Bizkaiko Foru Aldundian-, eta ukaezina da gure herriak azken mende honetan ibilitako bide luzea.

Euzko Alderdi Jeltzalea 1895ean sortu zen, foru-abolizioaren ondoren euskal herritarrei sakon astindu zien zurztasun-sentimenduari erantzuna emateko asmoz.

Foruak ziren euskal lurraldeen subiranotasuna babesten eta haien bizikidetzazuzentzen zuten oinarritzko arauak, hots, *de facto*, euren konstituzioak ziren. Horregatik, haiek kendu izanaren ondorio politikoek eragina izan zuten eguneroko bizitzaren maila guztietan eta benetako zigorra izan ziren euskal herritar guztientzat.

Izan ere, “euskal arazoa” deiturikoa-ren jatorria abolizio horretan dago. 1839ko urriaren 25eko lehenengo foru-abolizioaren ondorioz, Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko aldebiko harremanaren esparrua, atxikimendu librean oinarrituta eraikitakoa, ordezkatua izan zen alde bakarretik, mendekotasunean oinarritutako beste bat ezarriz. Horretarako, “... monarkiaren batasun konstituzionalaren kalterik gabe” dioen formula erabili zen. Geroago, 1876ko uztailaren 21eko abolizio legeak zabaldu eta osatu egin zuen 1839an hasitakoa.

Testuinguru horretan sortu zen Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco, helburu argi batekin: herri batekoak izatearen sentimendua eta herri horren jatorrizko subiranotasuna berreskuratzea -“Euzkotarren aberria Euzkadi da”-.

Geroztik, urrats ugari eman izan dira helburu hori lortzeko bidean. Horrela, II. Errepublikaren garaian, bultzatu egin ziren Lizarrako Estatutuaren eta Probintzietako Gestoren proiektuak, burutu gabe geratu zirenak. 1933ko azaroaren 5eko erreferendumean nabarmen geratu zen euskal herritarrak, gizon eta emakumeak, Euskal Estatutuaren aldekoak zirela, hautesleen % 87tik gora autogobernuaren alde agertu baitziren. Azkenik, Estatutua onetsi egin zen, baina hau 1936ko urriaren 1ean, gerra zibila hasita zegoela gertatu zen. Aste

EUSKO LEgebiltzarreko PRESIDENTEA

bete baino lehen, urriaren 7an, José Antonio Agirre Lekube Euskadiko Lehendakaria hautatua izan zen. Eusko Jaurlaritzara jaio zen, zeinak lanean jarraitu baitzuen Euskadi erori ondoren; Lehendakariaren hitzetan: “Lurraldea konkistatuko zuten, bai, baina Euskal Herriaren arima, ez; ez dute sekula konkistatuko [...] Berreskuratuko dugu gure aita-amen lurra [...] garaipenaren egunera arte”.

Diktadurak iraun zuen bitartean, errepresioak ez zuen eragotzi sentimendu abertzalea gurasoengandik seme-alabengana iristea eta hedatzea. Franco hil ondoren, alderdi politikoak legezkatu ziren eta Euzko Alderdi Jeltzalea izan zen berriro gure herrian boto gehien lortu zuen indarra. Katea ez zen eten, memoria historikoak iraun zuen, eta euskaldunek berriz ere eskaini zioten beren konfiantza Sabino Aranak zortzi hamarkada lehenago sortutako alderdiari.

Trantsizio bete-betean, itxaropenerako leiho bat ireki zen 1979ko urriaren 25ean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrek erreferendum bidez Gernikako Estatutua onartu zutenean, zeinak, beste batzuen artean, artikulua hauek dituen:

“Euskal herriak, bere naziotasunaren adierazgarri eta autogobernua iristeko, Autonomia Erkidegoa gisa eratzen du bere burua Espainiako Estatuaren barruan” (1. artikulua)

“Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak dute, Nafarroak bezala, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa osatzeko eskubidea” (2. artikulua)

“Estatutu honetan finkatutako autonomia-araubidea onartu izanak ez dakar Euskal herriak bere historiaren haritik herri gisa dagozkiokeen eskubideei uko egiten dienik” (Xedapen gehigarria).

UKAZIOAK ETA INPOSIZIOAK ARAZOAK KONPONTZEA LORTU ORDEZ, GAITZOTU EGITEN DITUZTELA, GATAZKA BIHURTZERAINO

Gernikako Estatutuari esker, ekin ahal egin zitzaion desegituratuta, ekonomikoki eta kulturalki hondatuta zegoen herri bat egituratzeari. Eta, gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen ezen horrek eman digun gaitasun politiko eta instituzionalari esker nabarmen aurrera egin ahal izan dugula politikan, ekonomian, industrian, gizartean eta kulturaren. Halarik ere, ongizate-gradu hori bezain azpimarragarria da ezen, onartu zenetik ia lau hamarkada igaro direnean, oraindik ere betetzeke dagoela horren zati handi bat. Ez betetze horrek eragin kaltegarriak ditu herritarrentzat. Beraz, Gernikako Estatutua devaluatu egin dela eta eguneratu beharrean dela ondorioztatu dezakegu.

Hori bideratu nahian, 2001ean, Eusko Legebiltzarrak hasiera eman zion autogobernua gaurkotzeko prozesu bati, zeina Estatutu Politiko Berria onetsiz burutu zen, 2004ko abenduan. 2005eko otsailean, Diputatuen Kongresuak ukatu egin zuen hori izapidetzeko onartzea. Ezezko horrek

eragotzi egin zuen euskal Ganberan erabateko gehiengoz erabakitako Estatutuaren erreforma gauzatzea eta, ondorioz, "euskal arazoak" irauten du. Horrela agerian utziz ukazioak eta inposizioak arazoak konponetzea lortu ordez, gaiztotu egiten dituztela, gatazka bihurtzeraino.

Aurrekari horiekin, 2014. urtean, ordezkariak zituzten talde guztien parte hartzearekin, Autogobernuari buruzko Lantaldea sortu zen Eusko Legebiltzarrean. Bertan, adituen, protagonisten eta instituzioen ekarpenak jaso ondoren, talde bakoitzak idatzita utzi zituen egokiarri buruzko ebaluazioa eta etorkizuneko proposamena. Eta, legealdi berri honen hasieran, ezaugarri horietako organo parlamentario bat sortu da berriz ere, hasitako lanei berriro ekiteko eta burutzeko asmoz.

SINETSITA NAGOZENBAT ETA AUTOGOBERNU HANDIAGOA IZAN ORDUN ETA ONGIZATEA ERE HANDIAGOA DELA

Balantze hau egin genezake, gainera oso laburtuta, orain arte eraikitakoaz. Bide luzea ibili dugu eta, oztopo ugariaren gainera, lorpen handiak erdietsi ditugu. Baina, oraindik ere, gauza asko dago egiteke. Orain, denon artean, definitu behar ditugu zein diren hurrengo urteetan lortu nahi ditugun helburuak eta horiek iristeko tresnak, zein den xedea argi izanda, beti ere.

Abiapuntutzat hartzen dugu ezen Gernikako Estatutua ia 38 urte lehenago onetsi zela, gaurkotik oso desberdina zen testuinguru batean. Orduko Euskadi eta oraingoa, orduko Europa eta oraingoa, orduko mundua -oro har- eta oraingoa nabarmenki desberdinak dira.

Horregatik guztiagatik, Legebiltzarrean ordezkariak dituen euskal herritarren borondate politikoa eguneratu behar dugu.

Euskal Ganberari dagokio hori egitea, bera baita herriaren subiranotasunaren gordetzailerik legitimoa. Hori da, hain zuzen ere, Autogobernuari buruzko Lantaldearen helburua: oinarriak ezartzea eguneratze hori gauzatzeko.

Orain, alderdiei dagokie adostea. Eta, alde horretatik, adierazi beharra dago ezen gatazka politikoei irtenbidea aurkitzeko metodoaren euskarri direla elkarrizketa, negoziazioa eta indar politikoen arteko akordioak zabalenak, eta ezan gehiengo demokratikoen errespetua.

Printzipio demokratikoetan txikiak ere exijitzen du herritarren gehiengoaren borondateari balio normatibo aipagarria ematea. Eta horrek eskatzen du behar diren doikuntzak negoziatzea -baita konstituzionalak ere-, borondate horren adierazpen argiari erantzuna emate aldera.

Abian jarritako prozesu honen ondorioz, non gizartearen parte hartzea ezinbestekoa gertatuko den, estatus juridiko-politiko berri bat erdietsia nahiko nuke, eskubideetan oinarritutakoa, norbanakoenak zein kolektiboak eta herri gisa dagokigun erabakitzeko eskubidea barne.

Sinetsita nago -eta horrela demostratu da Gernikako Estatutuaren lau hamarkadako indarraldian- zenbat eta autogobernu handiagoa izan ordun eta ongizatea ere handiagoa dela. Edo, gauza bera dena, subiranotasun handiagoak esan nahi duela ongizate handiagoa Euskadiko emakume eta gizonentzat. Eta hori kontuan izan behar dugu estatus berriaren aginte funtsa ezartzerakoan.

Estatus juridiko-politiko berri bat behar dugu herritarren beharrezaneri erantzuna emateko, eskubide sozial, ekonomiko eta politikoak bermatzeko eta gure herriaren etorkizun kolektiboaren erantzule izateko.

Honaino iritsi gara gure aurrekoen lana, konpromisoa eta esfortzuari esker. Orain guri dagokigu ondorengo belaunaldi gure lehenagokoak amestu zuten Euskadi gauzatuta uztea. Izan ginelako gara eta garelako izango dira.

